

## GASTEIZKO LEGBILTZARREAN EHUNEKO EHUN EUSKARAZ

### Naziogintza Taldea

Batzuek fase berria deituko diote, beste batzuek aldeztatik iragarritako eredu baten krisia, baina, edozein modutan, oso zabaldua dago euskararen “berreskurapena” EAE-n agortuta dagoen bide batean dagoela sartuta. Hots, orain dela hogeita hamabost urte hasi zen bideak eman duela eman beharrekoa, gutxi edo asko. Horrek ez du esan nahi egindakoa alferrikakoa izan denik, baina bai badaudela makina bat arrazoi, bai hizkuntza politikak eraberritzeko, bai euskararekiko jarreretan aldaketak bultzatzeko. Egoera kritiko horren jakitun, jendarte eta politika eragile batzuei ez zaie axola euskara; haien euskaraz bigarren mailako gaia da. Euren ustez euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun ezintasunak ez du agenda informatiboetan egon behar; ez du arreta berezirik behar; izan ere, askotan, euren asmo gorenentarako traba moduan ikusten dute gaia. Horiek alde batera utzita, euskararekin sentiberagoak izan beharko luketen eragile politikoek beti jotzen dute, berreskurapenaz hitz egitean, ardura guztia herritarren gainera botatzera, zama gainetik kendu nahian edo. Eurentzat ez dago legezketasunean edo erakundetze sarean akatsik eta horren ondorioz aldaketarik egin beharrik. Orain dela hogeita hamabost urte egin zenarekin nahikoa da.

Jokaerak aldatu beharrean jarri dute batzuek euskara indarberritzeko giltza. Hala esaten digute behin eta berriz. Hala esan zigun Bingen Zupiriak 2017ko euskararen egunean hainbat egunkaritan ateratako artikuluan. *Jende askok ikasi du euskara, baina zer gutxi erabiltzen den*, zioen nahigabetuta kultura-sailburuak, eta, egoera kezagarriaren aurrean, erraza iruditzen zitzaion konponbidea: *Gaur gure beharrez handiena erabilerari astindu bat ematea da. Euskara gehiago eta gehiagotan erabiltzea*. Bitxia hor ere, ohikoa den legez, aldatu behar horretan elite politikoa salbuetsita geratzen zela: *Jende askoren konplizitatea behar dugu horretarako. Besteak beste hiztun zaharrona eta berriena... lider, gizarte-buruzagi eta jende ezagunarena, euskarak haien ezpainetan prestigioa har dezan... enpresari, kudeatzaile eta langileena, euskara lan-mundura eramateko*. Ez dago politikoen aipamen espliziturik, kasualitatea ote?

Deigarria da herritarrari behin eta berriz luzatzen zaion eskaeraren, ia exigentziaren, aldamenean, zer gutxi emateko gertu dagoen klase politikoa. Zeinen gutxitan ikusten ditugun eredu modura jokatzeko eta herritarrari eskatzen dizkioten pareko urratsak ematen! Urrun dago klase politikoa eredu garria izan beharko lukeen jokaeratik. Behin eta berriz politikari euskaldun asko entzuten ditugu erdaraz hitz egiten, euskararen egoera euren arazoa izango ez balitz bezala. Askotan ematen du euskararen presentzia, euskaraz hitz egitea, traba modura bizi dutela politiko euskaldun batzuek, agian uste dutelako euskarak ez diola uzten bere mezua modu argi eta zuzenean transmititzen, edo, okerragoa dena, beharbada uste duelako euskaraz hitz egiteak erakargarritasuna kentzen diola bere mezuari. Baina bada garaia herritarrok ere klase politikoari eskatzeko konpromisoak har ditzala, herritarrari eskatzen dizkionaren parekoak.

Gasteizko Legebiltzarreko alderdi abertzaleen parlamentari gehien-gehienak euskaldunak dira. Hala ere, harrigarria egiten zaigu legebiltzarreko eztabaidetan euskararen ordean erdaraz entzutea maizegi. Zergatik ez dute beti euskara erabiltzen haien mintzaldietan? Zergatik ematen diote hain leku zabala erdarari? Uste dugu legebiltzarrean euskararen presentzia eskusiboak ez diola eragin kaltegarriarik egiten politikaren mezuari, edo “izen onari”. Erdararako joera horren aitzakia ere ezin da izan arazo teknikoa, baldin eta itzulpen zerbitzua badago. Kataluniako Legebiltzarrean

alderdi abertzaleek %100ean erabiltzen dute katalanera, Galizian talde guztiek egiten dute galizieraz, Galesen Plaid Cymru alderdi abertzaleko kideek %54 egiten dute galesez. Asko eskatzea al da Gasteizko legebiltzarrean politiko euskaldunek %100ean erabil dezatela euskara haien arteko eztabaidetan?

2018a sinbolismo handiko urtea izango da euskararentzat eta euskaldunontzat. Ehun urte beteko dira Eusko Ikaskuntzaren lehen biltzarretik, ehun urte Euskaltzaindiaren sorreratik, eta berrogeita hamar urte Arantzazuko biltzarretik, gure hizkuntza arautu zuen hartatik. Ehun urte hauetan arbasoek egindako ahalegin erraldoien ondoan, era guztietako jazarpena eta oinazea jasan behar izan dugu euskaldunok: debekuak, gutxiespenak, irainak; eta oraindik lotsatu egin behar al dugu? Hori guztia dela eta, konpromiso sendoa eskatzen diegu parlamentari euskaldunei, pertsonalki zein talde mailan, aurrerantzean legebiltzarreko eztabaidetan hizketaldi guztiak euskara hutsean egin ditzaten. Parlamentarien esku dago egitea, ezerk eta inork ez du hori oztopatzen.

Urte berrian, beraz, NAZIOGINTZA taldeak egindako proposamen honi gure sostengua ematen diogu, eta Eusko Legebiltzarrean parlamentari euskaldun guztiek %100ean euskaraz mintzatzeko konpromisoa eskatzen diegu.

J.I. Lopez de Luzuriaga, M. Urkola, A. Sarriegi, J. Albero (NAZIOGINTZA TALDEAren izenean)

**Atxikimendua eman duten pertsonak:** Anje Duhalde (abeslaria), Maddalen Lujanbio (bertsolaria), Mikel Aranburu (Realeko futbolari ohia), Andoni Egaña (bertsolaria), Ainhoa Larrañaga (unibertsitateko irakaslea), Laxaro Azkune (Herri Irratiko langile ohia), Aitor Mendiluze (bertsolaria), Joxe Manuel Odriozola (euskaltzalea), Xabier Arregi (irakaslea), Paulo Agirrebaltzategi (kultur eragilea), Jonjo Agirre (euskaltzalea), Juan Inazio Hartsuaga (idazlea), Pako Sudupe (idazlea), Paulo Iztueta (idazlea), Iñigo Jaca (medikua), Joseba F. Tobar Arbulu (ekonomilaria), Oskar Martinez de Gereñu (musikaria), Dionisio Amundarain (kultur eragilea), Maritxu Goikoetxea (musikaria), Miren E. Alkorta (kultur eragilea), Juan Azurmendi, Luis Baraiazarra, Laida Begiristain, Juan Jose Iturriotz, Xabier Kamino, Ainhoa Larramendi, Francisco Loidi, Jose M. Rementeria, Jon Urruxulegi, Mikel Zuazabeitia, Lorenzo Zugazaga, Martxel Aizpurua, Aitor Arruti, Xabier Zarandona.